

**Gaia: Prozedura ebazteko gehieneko epea igarotzea eteteko erabakia**

Espedientea: Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten duena, Unibertsitate-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura (2026-2027) (2026ko martxoaren 24ko Agindua. 2026ko apirilaren 27ko EHAA, 77. zk.)

Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila

2026-2027 aldian egin beharreko Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragarri zituen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2026ko martxoaren 24ko Agindua dela eta (2026ko apirilaren 27ko EHAA, 77. zk.). Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar da (10.3 oinarria); izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiri buruz irizpidea zehazteko, horrelako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Hori dela eta, jakinarazten dugu 2026ko ekainaren 29an eskatu zaiola Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari (Unibasq) aipatutako txostena emateko eta bidaltzeko, administrazio-espedienteari gehitzeko.

13.4 oinarrian sei hilabeteko gehieneko epea ezartzen da ebazpena emateko, deialdia ezartzen duen agindua EHAA-n argitaratzen denetik kontatzen hasita. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura bat ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legeko gehieneko epea igarotzea eten ahal izango da, besteak beste, administrazio bereko edo beste administrazio bateko organo bati nahitaezko txostenak eskatzen zaizkionean. Etendura-epe hori ez da inola ere hiru hilabetetik gorakoa izango.

Horren arabera,

ERABAKITZEN DUT

2026-2027 aldian egin beharreko Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak emateko deialdia egin zuen eta deialdi horren oinarri arautzaileak onesten zituen Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburuaren 2026ko martxoaren 24ko Agindua dela eta (2026ko apirilaren 27ko EHAA, 77. zk.), Sail honetan izapidetzen ari den espedienteari ebazteko gehieneko epea igarotzea etetea, hiru hilabetez, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena espedientera gehitu arte, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziakoa (Unibasq). Epe hori igarotakoan, kontaketa berriro hasiko da automatikoki.



Erabaki hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

Amaia Esquisabel Alegría
ZIENTZIA POLITIKAKO ZUZENDARIA